

0. IDEIAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

Gure produktua “Showerapiid” deitzen da. Produktu hau dutxa baten osagarri bat da, dutxatzeko orduan oso nekatuta bazaude, zailtasunen bat edo denbora gutxi baduzu, dutxak berak bi esku handien bitartez lagunduko dizu, zuk ezer egin behar izan gabe. Dutxa bai zutik eta baita eserita ere hartu dezakezu, osagarria era batera edo bestera erabili baitaiteke.

Gure produktuak aukera extra batzuk eskaintzen ditu dutxa erlaxatuago bat izan ahal izateko: masaje bat hartzeko aukera, pantaila bat eta bertan hainbat pelikula, eta baita mugikorrera konektatu ahal izateko ere, azkenik, musika entzuteko aukera ere badago. Horrez gain, bozgorailu bat edukitzeko aukera egongo da musika edo pelikularen bat altu entzun ahal izateko. Aldi berean, oso lanpetuta dabilen jendearentzat, mobilaren bidez ere hitz egiteko aukera eskainiko da, denbora benetan aprobetxatu ahal izateko.

Etxeek hainbat dutxa izaten dituzte eta beste dutxa berri bat erosi beharrean bi esku erantzeko aukera dago, obra handirik egin gabe. Honek gainera gure osagarriaren instalazioa merkeagoa eta azkarragoa egiten du. Esku hauek luzera desberdinetan jarri daitezke eta bakoitzak bere tamainaren arabera egokitu ditzake. Dutzaren estetikari dagokionez, eskuak gordetzeko edo jasotzeko aukera egongo da, baita beraien kolorea aukeratzeko ere. Horrez gain, oso eroso da pertsona elbarrituentzat, dutxaren barnean aulkitxo bat ere jarri eta zutik egotearen arazoa konpontzen baitu.

Hasieran, Bartzelonan egongo da enpresaren egoitza, Espainiako hiri industrial handienetako bat delako, oso ondo komunikatua baitago edozein garraiobideren bidez eta, etorkizunean, Europara zabaltzeko ere kokapen ona iruditzen zaigulako. Gainera Bartzelonan enpresa asko daude eta haien esperientziatik asko ikasi dezakegu. Gure produktua Espainian ezaguna egin ondoren eta salmenta kopuru bat lortu ondoren internazionalki garatzeko asmoa baitugu.

Ikertzen ibili ondoren, gure produktua oso berritzailea dela konturatu gara, eta beraz, momentuz munduan ez dago antzekorik, horrek salmenta errazagoa izan dadin lagunduko digu. Orain arte gure produktuari buruz egin ditugun aurkezpenetan arrakasta handia izan dugu eta hori guretzat oso garrantzitsua da.

Osagarri hau ere, ura erregulatuko du, eta ikusita gaur egun dugun arazoa modu ezinhobea iruditzen zaigu laguntzen saiatzeko. Inteligentzia artifiziaia edukiko duenez, dutxak momentu desberdinetan ur kantitate desberdina erabiliko du. Hasieran presio handia erabiliko da baina ondoren eskuak funtzionamenduan daudenean ez da urarik egongo, baina hotza ekiditeko beroa mantendu egingo da. Ondoren berriro ura piztuko da iletik xaboia kentzeko. Gure ustez, prozesu honekin ur gutxiago gastatuko dugu eta, gainera, uraren faktura murriztu egingo da.